

Pirinioetako erromatar galtzada

La calzada romana de los Pirineos

La voie romaine des Pyrénées



PIRENAEUS proiektoa - proyecto - projet

PIRENAEUS mugaz gaindiko proiektuaren xedea Ibañetako pasabidean zehar Pirinioen bi isurialdeak lotzen zituen Iter XXXIV erromatar galtzadaren aztarnategi arkeologikoak era bateratuan balioan jarri eta gizarteratzean datza.


El proyecto transfronterizo PIRENAEUS tiene como objetivo poner en valor y socializar de manera conjunta el patrimonio arqueológico alrededor del collado de Ibañeta, donde se ha podido localizar el trazado de la calzada Iter XXXIV y varios yacimientos de periodo romano.

Le projet transfrontalier PIRENAEUS vise à valoriser conjointement et à diffuser le patrimoine archéologique autour du col d'Ibañeta, où ont été localisés le tracé de la route Iter XXXIV et plusieurs sites de l'époque romaine.

Pirinioetako galtzada erromatarraren ibilbidea eta bertako kokaguneak

Recorrido de la calzada romana del Pirineo y sus asentamientos

Voie romaine des Pyrénées et ses établissements



Lurralde honen erromatar konkista K.a. I. mendearen bigarren zatian zehar gertatu zen eta ondotik hasi ziren inguru hauetako antolaketa berria finkatzeko ekipamendua eraikitzen. Horien artean ezagun izan zen Augustoren agintalditik aintzina Pirinioak alde batetik besterat zeharkatzen zituen erromatar galtzada, Asturica-ko (Astorga) eta Burdigala-ko (Bordele) hiriak lotzen zituen bidearen zatia, lehenagotik existituko zen bidea probestuz.

La conquista romana de este territorio se desarrolló a lo largo de la segunda mitad del siglo I a.C. y a partir de entonces comenzaron a construir las principales infraestructuras que facilitarían la puesta en marcha de su nueva organización en toda esta zona. Uno de los elementos principales que vertebró el funcionamiento de esta área fue la calzada que atravesaba los Pirineos, que fue construida a partir del mandato de Augusto, probablemente sobre una vía ya existente, y que unía las ciudades de Asturica (Astorga) y Burdigala (Burdeos).

La conquête romaine de ce territoire s'est développée tout au long de la seconde moitié du Ier siècle av. J-C. À partir de cette période, les Romains vont construire des infrastructures et mettre en œuvre une nouvelle organisation du territoire. Mise en place depuis le mandat d'Auguste, en aménageant une voie ancienne, la route qui traversait les Pyrénées, et qui reliait les villes d'Asturica (Astorga) et de Burdigala (Bordeaux) en constitue un élément fondamental.





Ezaugarri berdintxuak bortuaren bi aldeetan

Gaur arte eskuratu diren datuei esker, bide erromatarraren edo galtzadaren bazterrean eraiki termaguneek amankomuneko ezaugarriak zituztela ikusi da. Adibidez, Donazaharre eta Artziko erromatar aztarnategietako jatorrizko termak plano bera jarraituz eraiki ziren, ardatz zuzen baten inguruan, gela handienak abside bat zuelarik.

Horrez gain, Artzi, Zaldua eta Donazaharreko termak garai bertsuan abandonatu zirela dokumentatu da, hots, K.o. I. mendearen bukaeran edo II.aren hastapenean.

Características comunes a cada lado del puerto

Gracias a los datos obtenidos hasta la fecha, los distintos complejos termales construidos al borde de la calzada compartieron una serie de características comunes. Así, por ejemplo, los centros termales de los yacimientos romanos de Donazaharre y Artzi/Arce se construyeron con la misma planta, en torno a un eje lineal y con una sala provista de un ábside.

Además, se ha conseguido documentar que el abandono de las construcciones termales de Artzi, Zaldua y Donazaharre fue coetáneo, es decir, a finales del siglo I d.C. o principios del II d.C.




Des caractéristiques communes de chaque côté des cols

Grâce aux données obtenues jusqu'à présent, les différents espaces thermaux construits au bord de la route présentent une série de caractéristiques communes. Ainsi, par exemple, les thermes originaux des sites de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux et d'Artzi ont été construits sur le même plan, autour d'un axe droit et avec une abside dans la grande salle.

En outre, il a été possible de documenter que l'abandon des constructions thermales d'Artzi, de Zaldua et de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux était contemporain, situé vers la fin du Ier siècle ou le début du IIe siècle de notre ère.

Zaldua: 900m-ko altueran garatutako hirigunea

Iberiar penintsulatik zetorren galtzada gaur egungo Zalduako hiriguneraingo iritsiko zen, hau da, mendantea zeharkatu aurreko eskualde mailako azken herrigune garrantzitsuenera. 900m inguruko altueran garatutako hirigune honetan egindako ikerketa geofisiko eta arkeologikoek hirigunea erromatar galtzadaren inguruan garatu zela erakutsi dute, gutxienez 4,5 ha-ko hedadura eskuratuz. Herrigunearen kanpoaldean gainera, indusitako Ateabalsa eta Otegiko nekropoliak ere identifikatu dira, K.o. I-II. mendeetan datatuak.



Baliteke, antzinako testu greko-lantindarrek aipatzen duten *Iturissa* izatea, nahiz eta oraingoz, hori ziurtasunez ezin baiezttatu. Galtzada bertatik abiatuko zen mendian gora iparralderantz eta Ibañetako pasabidea zeharkatzerakoan, isurialdez aldatu eta bideko hurrengo hirigunera iritsiko ziren, Donazaharrera.

Bi herriguneetan, lurraldoko biztanleentzako zein galtzadako erabiltzaile edo bidaiarientzako oinarrizko azpiegitura edo ekipamenduak eraiki ziren, adibidez, termak; ezinbestekoak erromatarren eguneroko bizimodurako. Izan ere, norberaren garbitasunerako erabiltzeaz gain herrigunean sozializatzeko gune garrantzitsu bat ere izan ohi baitziren.



Bestalde, kokagune hauek merkataritza gune garrantzitsu bat ere izan zela adierazten dizkigute urte luzez egindako indusketa arkeologikoeetan topatutako zeramika, beira eta metalezko ehundaka objektuek ere. Horien artean, bertako eta urrunetik ekarritako elementuak dokumentatu ahal izan dira.

Zaldua: un centro urbano desarrollado a 900m de altitud

La calzada que venía desde la península ibérica llegaría hasta la actual zona urbana de Zaldua, el último de los núcleos urbanos más importantes de la comarca antes de atravesar el puerto.

Los estudios geofísicos y arqueológicos han demostrado que el centro urbano construido a una altitud aproximada de 900m, se desarrolló en torno a la calzada romana, ocupando un área de 4,5 ha. En las zonas periféricas del asentamiento, además, han sido identificadas las necrópolis de Ateabalsa y Otegi, datadas durante los siglos I-II d.C.

Este núcleo situado al borde del camino ha sido asociado con el nombre de *Iturissa* que aparece en los antiguos textos grecolatinos, aunque con las evidencias que contamos hasta el momento no se ha podido confirmar. Desde la misma calzada se ascendería en dirección norte para atravesar el paso de Ibañeta y, tras cambiar de vertiente, se llegaría al siguiente núcleo urbano de la vía, que sería el de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux.

En ambos núcleos urbanos se construyeron equipamientos e infraestructuras básicas destinadas tanto para los habitantes del territorio como para los usuarios o viajeros de la calzada. Un ejemplo son las termas, imprescindibles para la vida cotidiana de los romanos. Porque, además de servir para la higiene personal, también constituían un importante núcleo de socialización en el interior del centro urbano.



Por otra parte, los objetos cerámicos, vítreos y metálicos encontrados durante las excavaciones arqueológicas nos indican que estos emplazamientos tenían importantes actividades comerciales. Entre ellos se han podido documentar tanto elementos procedentes de la zona como importaciones.

Zaldua : une agglomération développée à 900 m d'altitude

La voie venant de la péninsule ibérique atteignait l'actuelle zone urbaine de Zaldua, le dernier des centres urbains les plus importants de la région avant de traverser le port. Des recherches géophysiques et archéologiques ont montré que le centre urbain, construit à une altitude d'environ 900 m, s'est développé autour de la voie romaine, occupant une superficie de 4,5 ha. Dans les zones périphériques de l'agglomération, les nécropoles d'Ateabalsa et d'Otegi ont également été identifiées, datant des Ier et IIe siècles après J.-C.

Ce centre, situé au bord de la route, a été associé au nom d'Iturissa, qui apparaît dans d'anciens textes grecs et latins, bien que les preuves dont nous disposons jusqu'à présent n'aient pas permis de le confirmer. Depuis la route elle-même, le tracé monterait en direction du nord pour franchir le col d'Ibañeta et, après avoir changé de versant, atteindrait le centre urbain suivant sur la route, à savoir Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux.

Dans les deux centres urbains, des équipements et des infrastructures de base ont été construits tant pour les habitants du territoire que pour les usagers ou les voyageurs de la route. Les thermes, essentiels à la vie quotidienne des Romains, en sont un exemple.

En plus d'être utilisés pour l'hygiène personnelle, ils constituaient un important centre de socialisation au sein du centre urbain.


D'autre part, les objets en céramique, verre et métal trouvés lors des fouilles archéologiques indiquent que ces sites avaient d'importantes activités commerciales. Parmi eux, nous avons pu documenter à la fois des objets provenant de la région et des importations.



Donazaharre: lautada eta mendien arteko herrigunea

Iparraldetik jiten zen erromatar galtzada gaur egungo Donazaharreko herrian sartzen zen, hots, Pirinioak trabeskatu aintzin eskualde huntan atxemaiten zen herri importantenean. Gainerat, bide hori deskribatzen duten testu greko-latino zaharretan aipatzen den *Imus Pyrenaeus* herria zela pentsatzen da. Erromatar galtzada hemendik abiatuko zen mendian goiti hegoaldera buruz. Ibañetako pasabidea trabeskatu eta isurialdez aldatuta, bideko lehen herrigunera helduko ziren, Zalduara. Orain arte ezagutzen ditugun datuekin herrigunearen eraikuntza K.a. I. mendearen azken laurdenean abiatu zen eta guneak gaur egunera inoiraun du populatua.

Mendiaren inguruko herriak biziki haundiak ez badira ere, zonbait guneetan monumentalizazio herexak eta eliteko pertsonen objektuak identifikatu dira Zalduan zein Donazaharren. Azken horren erakusle ezagunena dugu herriaren kanpoaldean, Tafernaberri inguruan (herriaren sartze-ateratzean) atxeman marmolezko *togatus* baten eskulturaren aztarnak.



Eskulturak toga erromatarra jantzia duen pertsona bat irudikatzen du (hortik *togatus*-aren izena). Huni buruz, marmol xurian landu 20 puska baino gehiago atxeman dira eta egun ikusgai daude Donazaharreko Herriko Etxearen ondoko museoan. Pentsatzen da monumentu baten ala nitxo baten parte zela, piezak kasik ez direlako landuak bazterreko eta gibeleko aldeetan. Estiloa begiratuz, menturaz aztarnategiaren erromatar garaiaren hastapenekoa da.

Donazaharre: un centro urbano entre las llanuras y las montañas

La calzada que venía del norte llegaría hasta el actual núcleo urbano de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux, el último de los núcleos urbanos más importantes de la comarca antes de atravesar el puerto. Además, este núcleo situado al borde del camino ha sido asociado con el nombre de *Imus Pyrenaeus* que aparece en los antiguos textos grecolatinos. Desde la misma calzada se ascendería en dirección sur para atravesar el paso de Ibañeta y, tras cambiar de vertiente, se llegaría al siguiente núcleo urbano de la vía, que sería el de Zaldua. Con los datos que conocemos hasta el momento, la construcción de este asentamiento se iniciaría durante el último cuarto del siglo I a.C., permaneciendo habitado hasta nuestros días.

Aunque estos asentamientos periféricos de montaña no son muy grandes, en algunos yacimientos se han podido registrar indicios de monumentalización y objetos vinculados a las élites sociales. Prueba de ello son los restos escultóricos de un togado de mármol hallado en las afueras de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux, en el entorno de Tafernaberría (en la entrada y salida del núcleo urbano). Sobre este togado se han encontrado más de 20 fragmentos de mármol blanco, actualmente visibles en el museo al lado del ayuntamiento del pueblo.

La escultura representa a una persona vestida con una toga romana (de ahí el nombre del togado), cuya localización original pudo estar en un monumento o nicho, ya que las piezas apenas están trabajadas en los laterales y la parte posterior. Además, por su estilo podría fecharse durante la primera fase de la época romana del yacimiento.




Donazaharre : une agglomération entre les plaines et les montagnes


Cette voie venant du nord atteignait l'actuelle ville de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux, dernière agglomération importante avant la traversée des sommets. Selon les textes grecs et latins anciens qui la décrivent, la station routière de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux est associée au nom *d'Imus Pyrenaeus*. La route se dirigeait ensuite vers le sud et, après avoir franchi le col d'Ibañeta, atteignait sur l'autre versant le centre urbain suivant de Zaldua.

Selon les informations disponibles à ce jour, la construction de cette agglomération a commencé au cours du dernier quart du 1er siècle avant J.-C., et elle est restée habitée jusqu'à aujourd'hui.

Bien que ces établissements périphériques de montagne ne soient pas très grands, il a été possible de relever sur certains sites des signes de monumentalisation et des objets liés aux élites sociales. En témoignent les vestiges sculpturaux d'un *togatus* en marbre trouvés à la périphérie de Donazaharre/Saint-Jean-Le-Vieux, dans la zone de Tafernaberria (à l'entrée ou la sortie de l' agglomération). Plus de 20 fragments de marbre blanc ont été trouvés et sont actuellement visibles au musée situé à côté de la mairie.

La sculpture représente un personnage vêtu d'une toge romaine (d'où le nom de *togatus*) et pourrait avoir été placée à l'origine sur un monument ou dans une niche, car les pièces sont à peine sculptées sur les côtés et à l'arrière. Son style pourrait la faire remonter à la première phase de la période romaine sur le site.





PIRENAEUS Akitania-Berria Euskadi Nafarroa
Euroeskuialdeak kofinantzatutako proiektua da.

PIRENAEUS es un proyecto cofinanciado por la
Eurorregión Nueva Aquitania Euskadi Navarra.

PIRENAEUS est un projet cofinancé par l'Eurorégion
Nouvelle-Aquitaine Euskadi Navarre.



Kontaktatu / Contacta / Contactez:
medeso@aranzadi.eus